

Funtsean, kronika liburua ere bada *Ekaitzaren ziprintinak*. XXI. mendeko euskal gizarateak daraman bilakaera sozialaren kronika dokumentatu eta doitu. Makroekonomiaren datu gordin eta hotzei amasestuaren taupadak txertatzen dizkiena. Gubernuen adierazpen ofizialei erreplika ematen diena. Eta *non gaudetik nora joan gintezkerako* arrasto batzuk markatzen dituena.

Amaitzeko, hasieran aipatutakoa berretsi nahi nuke: kazetaritzatik idatzitako lanak bidea zabaltzen ari dira euskarazko liburugintzan. Horren froga dira obra hau argitaratu deneko Elkar argitaletxearen Lekuko saila batetik eta, bestetik, Elkarrek berak, *Berria* egunkariak eta *Jakin* aldizkariak martxan jarri berri duten Aleka bilduma. Euskarazko kazetaritzaren garapenean beste urrats bat, koska bat gorantz. Izan ere, eguneroko kazetaritzaren praktika jarraituari esker, kazetari masa kritiko bat osatzen ari da eta horrek ahalbidetzen du halako pausoak ematea.

Elixabete Garmendia Lasa



GOIKOETXEA MENTXAKA, Jule
Demokraziaren Pribatizazioa: Kapitalismo Globala,
Europa eta Euskal Lurraldeak

Donostia: Elkar Argitaletxea, 2017
292 or. ; 21 cm
ISBN: 978-84-9027-774-4

Jule Goikoetxearen azken lanak, *a priori* xume bezain sakona den galdera bati erantzun nahi dio: “zer behar du herriak, aro kapitalista global honetan, demokrazia gisa irauteko?” (19. Orr). Hizkuntza erromantze zein germaniar gehienetan st- erroa duten hitzek iraunkortasuna adierazten dute: stability, structure, institution, state, statue ... Horren ondorioz, hauen inguruko hausnarketak alde batera uzten saiatu arren etengabe itzultzen dira eztabaidaren lehen lerrora. Euskaraz, polisemiaren bitxikeria tarteko, aipatu azken bi kontzeptuen adierazle bakarra “estatua” da. Hortaz, spoilerra onartu bekit Goikoetxearen galderaren erantzuna ere Estatua baita. Baina ez hori bakarrik. Liburu honen argia ez dagoelako erantzunean, horri helzteko egindako ibilbidean baizik.

Hori hala izanik, sarrerak garrantzia berezia du, hurrengo kapituluetan barrena gidatzeko beharrezkoa den nabigazio karta baita. Bertan, hegemonikoak diren eskolen ikuspegietatik harago, demokrazia eta berau ahalbidetzen duten mekanismoen definizio zorrotza eskaintzen digu “Estatu-fobia liberal zaharrari aurre eginez” (17. orr.).

Lehenik eta behin, kontzeptu estatiko baten ordez, Tillyren eskola jarraituz ikuspegi dinamiko eta erlazionala jarraitzen du (2010). Hortaz, demokraziaz harago, demokratizazioa eta desdemokratizazioaren arteko etengabeko gatazkan kokatzen du gakoa. Foucault-ren lan klasikoei keinu eginez bestalde (1995, 2000, 2003, 2008, 2009), askatasuna eta berdintasuna ez direla gertatzen diosku; “sustatu, babestu, eraiki eta inposatu egiten direlako” (11. orr.). Horren ondorioz, teoriarari liberal zein sozialista gehienek uste dutenaren kontrara, ezin da demokratizazioa teknika anti-disziplinario eta anti-biopolitikoetatik banatu (22. orr.).

Hori kontuan izanik, Tilly eta Foucault-ren ikuspegiak gainditzen dituen sintesia eskaintzen digu. Bere aburuz, *demokratizazioa*, “herritarrak autogobernuaren bidez boteretzen dituen etengabeko prozesu politikoak” litzateke (15. orr.). Herritarrak beren sistema politiko eta sozio-ekonomikoaren gobernugintzan aritzeko aldiz, teknika eta instituzio publiko diziplinario eta biopolitikoak ezinbestekoak izango dira (idem).

Marko horretatik abiatuz, liburuaren galdera nagusiari erantzuteko helburuarekin hiru tesi nagusi babesten ditu:

1. Demokraziak *estatu* moduan ezagutzen ditugun egitura publikoak eta herri eta estatu *soberaniaren* teoria eta praktikak galdatzen ditu (19.orr). Honen baitan *gaitasun politiko* (soberania materiala), “komunitate politiko batek daukan boterea (baliabideak, ahalmena, abilitadea) bere erabaki politikoak errealtate bilakatzeko” (34. orr) beharrezkoa izango da. Honekin batera, *ahalmen politiko* “eskumen zailantzaezinak dituen erabakimen gune bat (soberania formal)” ere aintzat izan behar dugu.
2. Politizatorik eta konfrontaziorik gabe demokraziarik ez dagoen neurrian, *etengabeko gatazka* demokratizazioaren ezinbesteko baldintza da. Gorputz otzan menderatuak eta gorputz boteretuak txanpon beraren bi aldeak diren neurrian, etenik gabeko gatazkan sortzen dira (20. orr.). Demosaren bi ezaugarri dialektiko nabarmendu daitezke: subjektua (boteretua) eta objektua (menderatua) dela aldi berean bata bestea gabe ezin delako ulertu.
3. Demosa XXI. mendean *gizarte normalizatzaile* bat izango da, kontrolezko mekanismo eta instituzio publiko biopolitiko (arautzaile) eta diziplinarioetan oinarritutako gizarte bat (idem). Ospitalean jaiotako institutuan ikastea (diziplina) edota Osakidetzan edo Osasunbidean tratamendua jasotzea (teknika biopolitikoetan oinarrituriko kontrol gizartea) liriateke gure egungo demosaren bi adibide. *Normalizazio gizartea* hortaz, diziplinako mekanismo erregulatzaileetan (biopolitikoetan) oinarritzen den gizarte estatalizatua da.

Demokratizazioaren baldintzak horiek baldin badira, zer da demokraziaren pribatizazioa? Bere aburuz, “*Demokraziaren pribatizazioak* oximoron bat eman dezake; izan ere, demokraziaren bitartez esparru publikoa zabaltzen da, eta pribatizazioak, berriz, kontrako norabidean jotzen du, eta esku pribatuetan jartzen ditu eskubideak, erabakiak hartzeko ahalmena eta instituzio publikoak, bai eta ondasun kolektiboa, jakintza, osasungintza, hezkuntza, baliabide naturalak eta autoritate politikoak ere” (12. orr.). Azken hamarkadetan demokratizazioa eta desdemokratizazioaren arteko tentsioak etengabeak izan badira ere, demokraziaren pribatizaziorako joera nagusitzen ari da.

Honen adibide argiak liriateke 2. kapituluaren lantzen dituen *kapitalismo globala eta honen dispositibo den Europar Batasuna*. Batez ere, 1. eta 2. tesiak baliatuz desdemokratizazioaren duten eragina azpimarratu eta egun nagusi diren ikuspegi nagusiak arbuatzen ditu. Azken hauek, unibertsaltasuna, kosmopolitanismoa eta arrazionaltasunaren izenean ukatu egiten dute nazioa, estatua eta subirautea mundua demokratizatzeke mekanismo egokiak direnik (33. orr.). Sassenen lana (2010) baliatuz, globalizazioa estatuetatik sustatu den dinamika dela adierazten du; “izan ere, haiek eraman dituzte arlo pribatura nazio-estatuari zegozkien zenbait funtsezko elementu” (37. orr.). Hortik abiatuta, aurreko definizioa plano zehatzago batean garatzen du: “Demokraziaren pribatizazioaren ezaugarri da estatuari zegozkion ahalmenak eta gaitasun publiko-politikoak (hala nola erabakiak hartzea, legeak egitea eta ezartzea, horiek ebaluatzea, berriro egokitzea, ondasunak ekoiztea eta banatzea) esku pribatuetara igarotzea (enpresak, adituak, lobbia, interes-taldeak, eragile exekutiboak) (idem.).

Atal honek, egungo Estatuari buruzko edozein azterketak kontuan hartu beharreko funtsezko hainbat elementu agerian uzten ditu. Uste denaren kontra, Estatua ez da ahuldu

aldatu egin da eta horren ondorioz bere adar batzuk indartu dira: exekutiboa, judiziala eta polizia kontrol mekanismoak; beste batzuk ahuldu diren bitartean: botere legegilea, parte hartze mekanismo publikoak eta ongizate politikak. Prozesu horretan, autoritate publikoen kontrolpean zeuden hainbat eremu autoritate pribatuen eskuetan utzi dira: gobernantza mekanismoak, rating agentziak edo arbitrajea honen adibide lirateke. Hala ere, dinamika horren atzean ez dago ez egia unibertsalik ez eta merkatuaren premia objektiborik, botere-harreman, barne-egitura eta klase sozio-ekonomikoen interesa baizik (37. orr.).

Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzaren Transatlantikoaren (TTIP) akordioak era eredu-garrian mamitzen du *lurraldearen desnazionalizazioa* eta *demokraziaren pribatizazioa* (41. orr.). Honen bidez estatuek beren autoritatea herri soberanitate kanpo eraiki diren erakunde supranazionalei ematen diete eta hauek modu aktiboan merkatuen eta enpresa pribatuen mesedera jarduten dute (idem.).

Europar Batasunari dagokionez, Hegoaldean bederen, ezin uka iragan faxistaren aurrean “modernizazioarekin” eta “aurrerapenarekin” artikulatu zela. Horren ondorioz, beste herrietan ohikoa den Euroeszeptizismoa ez da politikoki esanguratsua eta maila akademikoan ez dira ugariak gaia era kritikoa sakontasunez landu dutenak. Hasteko beraz, teorikoki berriazalea bezain ausarta dela esan beharra dago.

Europar Batasunaren demokrazia defizitak laburki hurrengoa esan nahi du: botere exekutiboak indartu eta legebiltzar nazionalen kontrola murriztu dela; Europar Parlamentua ahulegia dela eta horren ordez Kontseilua eta Batzordea (eremu exekutiboak) nagusi direla; erakunde hauekiko kontrola gainera oso zaila da, urruntasun geografikoaz gain prozedura ilun eta sekretuak nagusitzen baitira; praktikan ez dago egiaz Europar Batasuneko hauteskunderik, gai nazionaletan oinarrituta Europara doazen parlamentari nazionalak direlako errealitatean; EBk erabaki dituen politikek ez dute herritar gehienen babesik, ezta estatu kide gehienen babesik ere (42-44 orr.).

Honen aurrean, Europaren demokratizazioa xede duten proposamenek federalizazioa eta kosmopolitanismoa dute abiapuntu, “estatu soberania edo nazio (herri) soberania ahulduz, hartara, Batasuna bihur dadin gobernu-sistema kosmopolitar, post-subirano eta post-nazional bat” (52. orr.). *Kontu ikuskaritza demokrazia, demokrazia federala* eta *demokrazia erregionala edo demokrazia globala* lirateke proposamen ezagunenak eta guztiek hurrengo ezaugarriak konpartitzen dituzte: “fobia diote estatuari, nazioak mespreztatzen dituzte, moraltasun monoteista unibertsal batean sinesten dute eta merkatu askea babesten dute” (53. orr.). *Post-subiranotasunari* dagokionez, hausnarketa hurrengoa litzateke: estatu eta komunitate politikoaren arteko harremana geroz eta konplexuagoa den neurrian subiranaren ideia birpentsatu behar den arren, egungo EB-n nagusi den post-subiranotasunaren ideiak praktikan boterea esku pribatuetan uztean eragiten du (55-59 orr.). *Mundu kosmopolitar post-nazionala* aldarrikatzen dutenen aurrean aldiz, 1982-2005 arteko datuak aztertuta EB-15ean nazio identitatea eta lurralde nazionalarekiko atxikimendua hazi besterik ez dela egin erakusten digu (61. orr.).

Esanak esanda, kapitalismo globalaren atzean ez dago mundu mailako demokrati-zazioa sustatzeko proiekturik, demokrazia esku pribatuen eskuetan uzteko asmoa baizik. Honekin batera aurkezten den moral liberal unibertsalistak ere nazioak gogor kritikatzeko dituen inork aukeratzen ez dituela argudiatuz, baina errealitatean zer aukeratzen dugu era askean? Gure izatea, ongizatea edo gaizkizatea baldintzatzen dituzten hamaika ezaugarri aukeratu ez arren, “gizakiek beti politizatu ditzakete ezaugarri horiek denak, borroka politikoaren bitartez, eta horregatik da politizazioa demokratizazioaren osagai funtsezkoa; moralizazioak, berriaz, kontrako norabidean jotzen du” (77. orr.).

Hausnarketa horretatik abiatzen da demokratizazioari buruzko 3. kapitulua. Zehazki, arestian aipatu hiru tesiak dira bere argudioak garatzeko ardatzak. Tillyren ikuspegi dinamikoaren aztarna nabarmena izan arren, atal honetan Foucault-ek pisu handiagoa duela esango nuke. Lehengoaren ildotik, demokratizazioa hurrengo bi dimentsioen arteko amaierarik gabeko elkarrekinzantzat kokatzen du: *estatu aparatua daukan gaitasun subiranoa*, esku hartzeko, herritarrak kontrolatzeko eta haien eskariak mamitzeko; eta *herriak daukan gai-*

tasun subiranoa, aparatu horien kontra edo alde antolatzeke eta eskakizun esplizituak artikulatzeko inklusioaren eta berdintasunaren harian (81. orr.).

Bere lanean ideia bat funtsezkoa da: gatazkaren izaera eratzaila dela eta, demokratizazio prozesuan aurrera edo atzera egingo dugu baina inoiz ez gara demokraziaren azken eta behin betiko geltokira helduko. Horretaz gain, ezin dugu aldez aurretik jakin zeintzuk izango diren demokratizazioa sustatu edo desdemokratizazioa sustatuko dituzten tresnak beraz Foucaulten lana jarraituz “gakoa da erakustea nola menderakuntza harremanek subjektu aske eta berdina (edo kontrakoa) sortzen dituzten” (23. orr.). Hori kontuan hartuta gaur egungo demosa zer den ulertzeko “metodo genealogikoaren” bidez azken mendeetako eztabaidak, autoreak eta politizazio prozesuak aztertzen ditu “populazioaren sorrera” eta gerora “nazioa” deitu dugun hori kokatzeko (100. orr.).

Eskubide sozialen inguruko hausnarketa eta ongizate estatuari buruzkoa ere logika horretan kokatzen du. Horren bidez adierazten digu egitura eta estrategia publikoak izan direla herritarrak mendean hartu eta aldi berean botere-tituenak subjektu aske eta berdina sortuz. Teknika diziplinario eta biopolitikoak izan dira hori sustatu dutenak eta horien bidez “inposatu” da berdintasuna eta ahalbidetu da herritarrak euren gobernu-gintza prozesuan barneratzea. Hezkuntza publikoa, osasuna, gizarte segurantzak edota beste hamaika botere teknologia lirakeke adibidez hori modu egiturazkoan, masiboan eta iraunkorrean eragin dutenak. Hala ere, guzti horiek ez dira gobernu zehatz batzuen borondate eta moral onaren adierazle, borroka eta politizazio prozesuen ondorioa baizik.

Garrantzia berezia du Ongizate Estatu Patriarkalaren inguruko hausnarketak eta honen baitan kokatzen den desfamiliarizazioaren ideia. Hori esker, ikuspegi feminista batetik egitura publikoek demokratizazioaren duten papera gogoratzen digu. Horren ondorioz, ongizatean desmerkantilizazioa kontuan hartzeaz gain (merkatutik at ongizatea lortzeko ahalmena) desfamiliarizazioa ere hartu behar da kontuan (familiaratik at ongizatea lortzeko ahalmena) (117-121. orr.). Egungo jendarte patriarkalean gizonok desmerkantilizazioaren bidez ongizatea lortzera hel gaitzekoen arren, emakumeentzat desfamiliarizazioa ere beharrezkoa izango da eta orain arte Estatuaren ongizate politikak izan dira hori lortzeko tresna eraginkorrenak (119. orr.). Adibide argi bat ikuste aldera, ongizate eredu sozialdemokrata garatu duten herrialdeak izan dira zentzu horretan aurrerapauso gehien eman dituztenak, estatuak berdina banatzen dituelako baliabideak, gaitasunak eta aukerak herritaren artean. Hori dela eta “argi dago egitura publikoek asko eragiten dutela emakumeen demokratizazioan” (121. orr.).

Esandakoaren arabera, merezi du zuzenean bere tesi nagusietako bat jasotzea: “Berdintasuna ez da gertatzen, berdintasuna estatuak ezarri behar izaten du. Hori guztia dela-eta, demokratizazioa mamitzeko, premiazkoak dira egitura publiko ez-patriarkalak (gaitasun instituzionala daukatenak, hau da, subiranoak direnak) eta politika publiko ez-patriarkalak (teknika eta instituzio biopolitikoak eta diziplinarioak), betiere lurraldean artikulatuak daudenak (126. orr.).”

4. kapituluaren lantzen duen lurraldearen ideia da hain zuzen ere XXI. mendean demokraziari buruz hausnartzeko ezinbestekoa den dimentsioa. Zergatik? “ez badaukagu lurralde gisa markatutako eremurik, ez daukagu populaziorik. Populaziorik gabe ez daukagu herririk, eta herririk gabe ez dugu herri soberaniarik edo burujabetzarik” (131. orr.). Autoritate pribatuak indartu dituen deslurraldetze bat sustatu den arren, nazio historikoak era demokratikoan birsortzea ahalbidetu duten lurraldetze prozesuak ere bizi izan ditugu azken hamarkadetan: hori kokatzen du autoreak egungo Euskal Herriari buruz pentsamendu demokratikotik hausnartzeko gakoa.

Liburuan azaldutako ideien aztamak Goikoetxearen azken urteetako lanetan agerikoak diren arren, euskal lurraldeen ingurukoak dira jada argitaratutako ikerketetan era esplizituagoan garatutakoak (2013, 2014, 2015a, 2015b). Aurreko tesiak euskal lurraldeei aplikatuz, aztertu egiten du EAE, NFE eta Iparraldean “euskal komunitateak zer gaitasun politiko eta instituzional izan duen, ez nazio, kultura edo eskualde ekonomikoa gisa bizirauteko, bai zik eta demokrazia gisa bizirauteko” (154. orr.). Esan beharra dago, 5 eta 6. kapituluetan,

estatu erakunde, gaitasun politiko eta eskakizun politikoen artean sortutako loturen ondorioz, azterketaren muina EAE-k hartzen duela eta Nafarroak pisu gutxi duela.

EAEri dagokionez, federalismoa modan egon arren, pertsona gutxi dauka Euskal Sistema Federalaren existentziaren kontzientziarik. Hori dela eta, aipua soilik aurrerapauso bat suposatzen duela esan dezakegu, “*a posterioriko* performatibismoagatik” bada ere. Auto gobernaren eta gobernu konpartituaren printzipio federalak (Elazar, 1991:5) Lurralde Historikoen Legearen bidez eta Kontzertu Ekonomikoaren bitartez hezurramitzen dira. Hauen ondorioz, legebiltzar federal bat, sistema fiskal federal bat eta subsidiarotasun printzipioan oinarritzen den kultura politiko federal bat sortu da (157-163. orr.). Lurralde kohesioaz harago, gizarte kohesioan eragina izan du; kapital kultural, ekonomiko eta sinbolikoan banaketa handiagoa sustatzea ahalbidetu du, EAE Europako gizarte kohesio maila altuenera artean kokatuz (163-172). Honek erakusten digu primitibotzat jotzen zen sistema, XXI. mendean demokratizazioaren beharrezkoa den gaitasun politikoaren eta ahalmen politikoaren eredu bihurtu dela. Hori dela eta, etniko eta primitibotzat jotzen diren egungo burujabetza eskaera horien atzean ez dago zentzu prepolitikoan ulertzen den nazioaren defentsa, sistema demokratikoaren garapen propioa baizik.

Iparraldeko kasuak bestalde, era argian erakusten du deslurraldetze eta berlurraldetze dinamikak identitate ezberdinen “objektibizatzeko” prozesuan, leialtasunen ezarpenaren eta proiektu politikoak aurrera eramaten duten eragina. Existentzia soziala, dimentsio objektibo erakundetuak eta subjektiboek osatzen dute, baina bata desagertzen bada, epe luzera existentzia soziala desagertuko da (195. orr.). Frantziar Iraultzaren ostean, nazionalismo frantsesak Euskal Herriaren deslurraldetze prozesua aurrera eramatearekin batera “frantziarrak” sortzeko estrategia nazionalizatzaile eraginkorra jarri zuen marxan. Existentzia sozial “frantziarra” bere dimentsio objektibo zein subjektiboaren bidez era eraginkorrean ezarri zen (bi Mundu Gerra tarteko). Aherdoren lana baliatuz (2016), honen aurrean euskal abertzaleen berlurraldetze estrategia saiakera ezberdinak azaltzen ditu. Azken hamarkadetakoa dira aipagarrienak, bazterrekoa zen aldarrikapenak erabateko zentraltasun politikoa hartzeaz gain, demokrazian lurraldeak duen gaurkotasuna era argian azaleratzen duelako. 2017tik aurrera indarrean dagoen Euskal Hirigune Elkargoa izan da urteetako lan horren gauzatze praktikoa, eta etorkizunean lurraldea, autoritatea eta eskubideen arteko mihizadura ezberdin bat erakitzeke abiapuntua.

Akitania- Euskadi- Nafarroa euro-eskualdeari dagokionez, zuzentasun politikotik at, demokratizazio sakontzeko dituen gabeziak azpimarratzen ditu. Bere aburuz, lankidetzako termino ekonomikoetan ulertzen da eta honen baitan kokatzen du “Lurralde Adimentsuaren” paradigma ere bai (210-211 orr.). “Mugaz gairik lankidetzako nork eta nola egin (erakunde publiko arduratsu eta arduradunek ala esku pribatuek), kohesioa eta inklusioa handitu edo gutxitu dezakete” (idem.) eta egungo proiektuaren baitan merkantilizazioaren ikuspegia hobesteaz gain, demokraziaren pribatizazio sakontzen duten eragileak pribilegiatzen dira.

Azkenik, liburu osoan zehar garatzen diren tesi teorikoak EAE-ko demokratizazio prozesuan aplikatzen ditu 6. kapituluaren. Hala ere, “ardatza ez da berez demokratizazioa, baizik eta euskal demosa EAeko lurraldeetan birsortzeko eman diren baldintza material-objektibatuak, erakundetuak eta zertifikatuak” (223. orr.). Hori kontuan hartuta, “euskal demokratizazioaz aritzeak, ez du euskal paradisuaz aritzea esan nahi, baizik eta egungo (existitzen den) euskal gizartearen autogobernurako boteretuko duten botere teknologiez aritzea, eta beraz, menderatze eta ahalduz mekanismoen eta horien arteko eta aurkako borroka aritzea” (228. orr.).

Zentzu horretan, hauek azpimarratzen ditu: industria politikak; ikerketa eta garapen politikak; enplegua, prestakuntza eta gizarte politikak; EAE-ko lan esparruaren ezarpena eta negozio kolektiboaren garapen liskartsua (234-258 orr.). Euskal Estatu Erakundeek eskaintzen dituzten baliabideen bidez eta talde ezberdinek jarraitu beharreko irizpide eta baldintzen ezarpenaren bidez, hauen objektibazio prozesua sustatzeaz gain, erakunde hauekiko dependentsia eta konfiantza maila handitzen dute. Aldi berean, estatu erakundearen interpenetrazio ahalmena handitzen da eremu politiko ezberdin baten azalera ahalbidetuz. Ze-

hazki: Euskal Estatu Erakundeek klase indar garrantzitsuenak integratu dituzte; talde horien konfiantza eta mendekotasuna handitu da; Euskal Estatu Erakundeen bidez euskal talde sozio-ekonomikoen birsortze materiala ahalbidetu da eta hein handi batean talde hauek kontrolatu ditu (234-258).

Honen bidez, ez da ezberdintasuna desagertu, ezberdintasuna beste era batera bir-sortu da, hori dela eta bi hausnarketa gogoratzen dizkigu: zenbait mekanismok berdintasuna sustatu arren, Europako herrialde gehienetan bezala klaseen arteko desberdintasunak areagotu dira. Horretaz gain, desfamiliarizazio maila ongizate erregimen kontserbadore eta mediterraneoari loturik dago eta horren ondorioz euskal patriarkatu kapitalistak emakumeen dependentzia areagotu egin du (familia zerbitzuen gastua murriztuz eta haurrak dituzten familientzako diru laguntzak murriztuz) (258-261 orr.).

Euskal demokraziaren pribatizazioa bestalde, espainiar birzentralizazioarekin eta euskal mendekotasun politiko eta instituzionalarekin lotzen ditu. Nikolas eta Urrutiaren (2016) lana baliatzen du hainbat dinamika zehatz azaltzeko. Besteak beste, Espainiar exekutiboak hartutako hurrengo erabakiek euskal demokraziaren pribatizazioa eragin dutela adierazten du: lan erreformak, autonomia finantziarioaren mugapenak, aurrezki kutxen pribatizazioa, hezkuntza sistemaren pribatizazioaren sakontzea eta ebaluaketa eta hizkuntza aukeratzeko mugak, osasungintzaren desdemokratizazioa eta tokian tokiko gobernu eta administrazioen pribatizazioa (262-268 orr.).

Euskal demokrazia, kapitalista eta patriarkala hortaz, demokratizazio eta desdemokratizazioaren arteko tentsioan aztertzen ditu, azken urteetan demokraziaren pribatizazioaren areagotzea azpimarratu arren. Hori kontuan hartuta, hasierako tesi eta galderari erantzunez, euskal demokratizazio prozesu bat egon dadin hurrengo elementuak ezinbestean beharrezkotzat jotzen ditu:

- (1) Euskal Estatu Erakundeek ahalmen politiko nahikoa izan behar dute erakunde horienak ez diren baliabideak eta gizarte erlazioak kontrolatzeko. *Erakunde publikoen gaitasuna*.
- (2) Euskal eragileek gai izan behar dute beren eskakizunak artikulatzeko, eta, beraz, antolatu eta mobilizatzeko. *Herritarren antolakuntza gaitasuna*.
- (3) Euskal Estatu Erakundeek ahalmen politikoa izan behar dute eskakizunok mamiatzeko. *Herritarren antolakuntza gaitasunak + Erakunde publikoen gaitasunak ahalbidetzen dute demosaren auto Gobernu, ordezkari bidez edo era zuzeanean*. (269. orr.)

Hasieran adierazi bezala, galdera xume bezain sakona da proposatutakoa eta horren ondorioz gaian aditua ez den pertsonari liburuak esfortzu berezia galdutako dio. Zenbait kontzeptu hainbatetan errepikatu arren, ez da erraza hauen funtsa bere osotasunean barnerraztea. Hala ere, hori lortze aldera, “estatua vs. gizarte zibila”, “herrigintza vs. Estatu gintza”, “klase borroka vs. patriarkatua” edota “naziogintza vs. eskubide sozialen defentsa” bezalako dikotomia antzuen betaurrekoetatik egiteak nekez lagunduko du.

Orokorrean azterketa teoriko eta enpiriko zorrotza da Jule Goikoetxearen lanak eskaintzen diguna. Nagusi diren teoria eta teoriarrien kritika zuzena egiteaz gain, marko teoriko alternatibo bat proposatu eta kasu zehatzetan aplikatzen du. Hala ere, zenbait hausnarketetan epe motz/ertainean zer egin? galderari erantzun praktikoren falta sumatu daiteke (ziur aski lanaren xedeak eta editoreen mugak gainditzen dituelako). Adibide bat Europar Batasunaren diagnostikoaren ostean dakusagu: EB demokraziaren pribatizazioaren dispositiboa dela jakinda, zein izan beharko litzateke epe motzean demokratizazioaren sakontzeko lehen neurria? EB-tik ateratzea? EFTA bezalako erakunde batean sartzea?

Esandakoak esanda, Alderdi Komunistaren Manifestuaren 170. urteurrena betetzen den 2018 honetan irakurketa zaharberriua onartu bekit: “Mamu bat dabil European zehar: soberaniaren mamua. Europa zaharreko botere guztiak gurutzada santuan elkartu dira mamu honen aurka”. Gurutzada horren baitan ez dago “egjari”, posizio zehatzetatik sorturiko “egia

erregimenak” baizik. Beraz, ez ditzagun mamuak uxatu: kokapen eta norabide demokratiko bat lortze aldera ezinbesteko GPS teorikoa da esku artean dugun lana.

Bibliografia

- AHEDO, Igor (2016). “Iparralde: the emergence of the Basque territory in France”. In P. Güell and À. Kolås (eds), *Basque Nationhood: Towards a Democratic Scenario*. Oxford: Peter Lang, 253–281
- ELAZAR, Daniel (1991). *Exploring Federalism*, Tuscaloosa: University of Alabama Press.
- (1995): *Discipline and Punish*, New York: Vintage Books.
- FOUCAULT, M. (2009). *Security, Territory, Population*. Houndsmills: Palgrave McMillan.
- (2008). *The birth of Biopolitics*, Houndsmills: Palgrave McMillan.
- (2003). *Society must be defended. Lectures at the Collège de France, 1978-79*, New York: Picado.
- (2000). ‘The subject and power’ in *Power. Essential Works of Michel Foucault Vol III*, New York: The New York Press.
- GOIKOETXEA, Jule (2015a). “Euskal Estatugintza Feminista”. In *Independetzia Helburu*. Tafalla: Txalaparta.
- (2015b). “Demokrazia, ahalmena erabakia” in *Revista Internacional de Estudios Vascos*, Vol 11, 32-44.
- (2014). “Nation and democracy building in contemporary Europe: the reproduction of the Basque demos”. *Nationalities Papers* 42.1, 145–164.
- (2013). “Nationalism and democracy in the Basque Country” (1979–2012), *Ethnopolitics* 12.3, 268–289.
- NIKOLAS, Zelai ; URRUTIA, Iñigo (2016). “The legal limits of decentralization in Spain: Accommodation or Secession? ”. In P. Güell and À. Kolås (eds), *Basque Nationhood: Towards a Democratic Scenario*. Oxford: Peter Lang, 183-219.
- SASSEN, Saskia (2010). *Territorio, autoridad y derechos de los ensamblajes medievales a los ensamblajes globales*. Madril: Katz Editores.
- TILLY, Charles (2010). *Democracia*, Madrid: Akal.

Jon Azkune